

emakumeen TXOKOA



2025EKO UDABERRIKO ESKAINTZA

Azpeitiko Emakumeen Txokoa, mugimendu feministaren borrokari eta aldarriari esker, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ekipamendu publikoa da. Gune horrek babesleku seguru eta konfidentziala eskaintzeaz gain, jatorri, kultura eta ezaugarri guztietako emakumeak ahalduntzeko espazioa ere bada.

Parekidetasun erreala lortzeko ibilbide horretan, askotariko baliabideak eta aukerak eskaintzen ditu, emakumeei beren trebetasunak, ezagutzak eta laguntza-sareak indartzeko aukera ematen dietenak. Gainera, bizitza soziopolitikoan aktiboki parte-hartzea sustatzen du, beren ahotsak entzuten eta baloratzen diren ingurune bat sortuz. Halaber, indarkeria matxistari aurre egiteko lanean jarduten da, erreparaziorako funtsezkoak diren zerbitzuak eskainiz.

HARREMANETARAKO

Izena emateko epea: ikasturte osoan edo ekintza bakoitzean adierazten den bezala.

NON EMAN BEHAR DA IZENA

Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behea.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera 09:00etatik 19:00etara eta ostiralak 9:00etatik 13:00etara.

Udako ordutegia (ekaina erdia eta uztaila): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

emakumeen txokoaan parte hartuz,
denok irabazten dugu! Zatoz!

JARRAI GAITZAZU



AzpeitikoEmakumeenTxokoa



@Etxokoa



@emakumetxokoa



Azpeitiko Emakumeen Txokoa

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ





emakumeen txokoko
ikastaro eta tailerrak

AZPEITIKO JABETZE ESKOLAK (2025EKO UDABERRIA)

Azpeitiko Jabetze Eskolen helburua da emakumeei beren burua eta bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea. Maila pertsonalean eta kolektiboan indartu, elkarrekin ikasi, errealitateari ikuspegi feminista batetik begiratu eta gure parte-hartze soziopolitikoa handitzen lagunduko digun topagunea dira.

Prestakuntza eskaintza anitza eta parte-hartzailea osatzeko, emakumeen proposamenetatik eta parekidetasuna bultzatzeko lan-ildoan lanketatik abiatzen gara.

Gure eskolan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, jendarte parekideago baterako bidea elkarrekin egin dezagun!

IZEN EMATEA

Izena emateko epea

Urtarrilaren 20tik 31ra

Non izena eman?

Azpeitiko Emakumeen Txokoan. Goiko Kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko moduak

Emakumeen Txokoan zuzeneko harrera bidez, emailaz, WhatsApp-ez, Telegram-ez edo telefonoz. Izen emateko orria bete beharko da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoan eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- Plazak mugatuak dira, eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurrez parte hartu ez dutenek.
- Taldeak antolatzeke, behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten emakume guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
- Hurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da gutxieneko 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurrez, izena ematerakoan adierazi.

1. EMOZIOEN UHOLDEA

Emozioek gure bizitzan duten eragina ukaezina da. Emozioak ezagutzea, onartzea eta kudeatzen ikastea funtsezkoa da ongizate emozionala, mentala eta fisikoa lortzeko. "Emozioen uholdea" tailerrean, emozioen munduan murgilduko gara: nola identifikatu, ulertu eta modu osasungarrian kudeatu. Helburua? Emozioak zure alde izatea, eta ez zure kontra.

Ez baditugu gure emozioak behar bezala lantzen, uholde baten modura, gainezka egin dezakete eta gure bizitzan oztopo bihurtu daitezke. Gure emozioek askotan zerbait adierazi nahi digute, eta haien mezuak entzuten ikasteak bizitza orekatu eta osasuntsuagoa izaten lagunduko digu.

Formatzailea: Itxaso Beristain Perez (psikologoa)

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Otsailak 10, 17 eta 24, martxoak 10, 17, 24 eta 31, apirilak 7 eta 14

Ordutegia: Astelehenetan, 18:00etatik 19:30era

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Iraupena: 9 saio, 13,5 ordu

Prezioa: 18,5€ Azpeitian erroldatutakoak / 22,5€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

2. SALSA BATXATA KUIR IKASTAROA

Urteak dantzatzen gabiltzan emakume, bollera eta transak rol tradizionaletatik harago joan nahi izan dugu. Tradizionalki dantza latinoetan gizonetakoek lider papera hartzen dute eta emakumeetakoek jarraitzailearena; horrek dantza mota hori heteroaraua indartzera darama. Gainera, emakume gehiago dira dantza egin nahi dutenak, baina jarraitzaile rolean aritzen direnez, askotan, gizonen menpe daude dantzatzeko. Horregatik sortuzen BSkuir: queer terminoa euskaratu (kuir) eta filosofia hori aplikatu genuen dantzara. Gure taldeetan denek ikasten dituzte rol guztiak, lider eta jarraitzaile (follower) rola txandakatuz. Hiru urte daramatzagu lanean eta dantzatzen. Horren ondorioz, sare bat sortzen hasi da: dantza gune alternatiboak non rola txandakatzen eta genero zein sexutik askatzen diren.

Formatzailea: Nerea Hernandez

Hizkuntza: Euskara


Noiz: Otsailak 8, martxoak 15, apirilak 5, maiatzak 3 eta ekainak 7

Ordutegia: Hilean larunbat bat, 11:00etatik 13:00etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Iraupena: 5 saio, 10 ordu

Prezioa: 16,5€ Azpeitian erroldatutakoak /
20,5€ Azpeitian erroldatu gabeak



3. EZ! 2.0. LIMITEAK JARTZEAREN PLAZERA

Desira eta beldurra, samurtasuna eta oldarkortasuna, baietza eta ezetzaren adierazpena, muga osasuntsuak jartzen ikastea, indarkeriarik gabeko komunikazioa, polaritateei buruzko lana, ondoeza sortzen duten jokabide-ereduak identifikatzea, beharrak identifikatzea, aisialditik sormena garatzea.

Formatzailea: Emuna Aüka (psikologoak)

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Maiatzak 7, 14, 21 eta 28, ekainak 4 eta 11

Ordutegia: Asteazkenetan, 17:00etatik 19:30era

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 6 saio, 15 ordu

Prezioa: 20,5€ Azpeitian erroldatutakoak / 25€ Azpeitian erroldatu gabekoentzako prezioa

4. OSASUNA GENERO IKUSPEGITIK

Ikastaro honek osasuna genero-ikuspegitik jorratzen du, emakumeek osasun-sisteman dituzten espe-rientziak eta edertasun-estandarrek beren ongizatean duten eragina aztertuz. Dietaren kulturari bu-ruzko gogoeta ere egingo dugu eta gure osasuna modu integralean zaintzeko estrategiak ikasiko ditu-gu, gorputzarekin eta elikadurarekin harreman positiboa garatuz. Helburua da emakumeak ahal-duntzea eta errespetuz eta maitasunez norbere buruaren zaintza sustatzea.

Formatzailea: Naiara Aizpurua

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Otsailak 4, 11, 18 eta 25

Ordutegia: Asteartetan, 18:00etatik 19:30etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Iraupena: 4 saio, 6 ordu

Prezioa: 10€ Azpeitian erroldatutakoak / 12,5€ Azpeitian erroldatu gabekoak

5. MENDI ORIENTAZIOA

Emakumeon artean mendizaletasunak gora egin du azken urteetan, baina sarri gizonen edo besteen gidaritzapean egiten ditugu mendi irteerak. Ikastaro honetan autonomia osoz, guk geuk erabakitako lekura joateko ibilbideak diseinatzen ikasiko dugu, baita baliabideak eta gaitasunak eskuratu ere.

Mendian era seguru batean ibiltzeko orientazioko oinarritzko ezagutza teoriko-praktikoak jasoko eta landuko ditugu. Horretarako, mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasiko dugu era praktiko batean, naturaren interpretazioarekin batera.

OHARRA: Ikastaroan izena emateko, beharrezkoa izango da mendian 3-4 orduz ibiltzeko gaitasuna izatea eta ikastaroaren saio guztietara joateko konpromisoa hartzea. Horrekin batera, beharrezkoa izango da mendiko botak eta mendiko motxila eramatea ikastarora.

Formatzailea: Patri Espinar

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Ekainak 13, 14 eta 15

Ordutegia: Ostiralean 17:00etatik 20:30etara eta larunbat zein igandean 9:00etatik 14:00etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa eta herriko mendiak

Iraupena: 3 saio, 13,5 ordu

Prezioa: 18,5€ Azpeitian erroldatutakoak / 22,5€ Azpeitian erroldatu gabekoak

6. KLOWN IKASTAROA

Umorea norbere zein gizartearen eraldaketarako tresna indartsu eta aberasgarria dela sinistuta gaude. Bide horretan, gure pailazoa ezagutu eta lantzea, barruan ditugun ideia, kezka, aldarrikapen eta abarrak azalertzeko modu eraldatzaile eta boteretsu bat izan daiteke.

Bizi dugun sistemak eta genero rolek, emakumea umorerako objektu izatera mugatu gaitu. Pailazoak berezkoa duen begirada kritiko eta botereari aurre egiteko joerak bat egiten du ikuspegi feministatik bultzatzen dugun jabekuntza bideekin eta umorerako subjektu aktibo izateko bidea irekitzen digu.

Formatzailea: Itziar Saenz de Ojer Martinez

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Otsailak 12 eta 26, martxoak 12 eta 26, apirilak 9

Ordutegia: Asteazkenak, 18:00etatik 19:30era

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 5 saio, 7,5 ordu

Prezioa: 12,5€ Azpeitian erroldatutakoak / 15,5€ Azpeitian erroldatu gabekoak



7. ETXEKO OINARRIZKO ELEKTRIZITATE EZAGUTZA

Ikastaro honen helburua da etxean sortzen zaizkigun arazo txikiei aurre egiteko baliabideak eskuratzea.

Kuadroa ulertzeaz gain, entxufe, interruptore, lanpara, etab. aldatu edo konpontzeko ariketak egingo ditugu.

Formatzailea: Izaskun Gurrutxaga

Hizkuntza: Euskara


Noiz: Apirilak 3 eta 10, maiatzak 8, 15, 22 eta 29

Ordutegia: Ostegunak, 10:00etatik 12:00etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 6 saio, 12 ordu

Prezioa: 16,5€ Azpeitian erroldatutakoak / 20€ Azpeitian erroldatu gabekoak



JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak	
Jaioteguna	NAN	
Herria eta P.K.		
Posta elektronikoa	Tlf.	
Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	<input type="radio"/> BAI <input type="radio"/> EZ	
Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	<input type="radio"/> BAI <input type="radio"/> EZ	
Nola?	<input type="radio"/> Whatsapp <input type="radio"/> Korreo elektronikoz	
(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)		
2025eko	en	(e)an
Sinadura:		

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

- | | |
|--|--|
| <input type="radio"/> 1. EMOZIOEN UHOLDEA | <input type="radio"/> 5. MENDI ORIENTAZIOA |
| <input type="radio"/> 2. SALSA BATXATA KUIR IKASTAROA | <input type="radio"/> 6. KLOWN IKASTAROA |
| <input type="radio"/> 3. EZ! LIMITEAK JARTZEAREN PLAZERA 2.0 | <input type="radio"/> 7. ETXEKO OINARRIZKO ELEKTRIZITATE IKASTAROA |
| <input type="radio"/> 4. OSASUNA GENERO IKUSPEGITIK | |

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? BAI EZ

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? BAI EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

IKASTAROAK ETA TAILERRAK

AZPEITIKO DESBOTERETZE ESKOLAK (2025EKO UDABERRIA)

Gizonentzako desboteretze-eskolak genero-rol tradizionaleri aurre egiteko guneak dira. Tailerrak eta eztabaidak eskaintzen dituzte, gizonak gizartean duten eginkizunari buruz hausnar dezaten eta genero-desberdintasunak zein indarkeria matxistak betikotzen dituzten portaerak desikas ditzaten. Gizon kontzienteagoak sortzea bilatzen dute, harreman parekideak eta indarkeriarik gabekoak sustatuz.

IZEN EMATEA

Izena emateko epea

Urtarrilaren 20tik 31ra

Non izena eman?

Azpeitiko Emakumeen Txokoan. Goiko Kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko moduak

Emakumeen Txokoan zuzeneko harrera bidez, emailaz, WhatsApp-ez, Telegram-ez edo telefonoz. Izen emateko orria bete beharko da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoan eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- Plazak mugatuak dira, eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian errolatutakoek
 - Azpeitian errolatuta egon eta ikastaro bera aldeztatik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian errolatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurrez parte hartu ez dutenek.
- Taldeak antolatzeko, behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten gizon guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
- Hurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da gutxieneko 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurrez, izena ematerakoan adierazi.

1. GIZONEK FEMINISMOAREKIKO DUTEN ARDURA

Beldur, ezjakintasun edo erosotasunagatik, feminista moduan haien burua izendatze duten gizon askok ez dute agian nahikoa aurrerapauso eman. Hau honela, gizarte feminista bat eraikitzen bidean gizonek hartu beharreko konpromisoez jardungo dugu.

Formatzailea: Iñi Etxezarreta Toca (Eihera Koop. Elk. Txikia)

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Otsailak 21

Ordutegia: Ostirala, 17:00etatik 20:30etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 3,5 orduko saio bat

Prezioa: Doan

2. DESIRA, EROTIKA ETA HETEROARAUUA

Lehentasunek eta desirek gurutzatu egiten dituzte pertsonen espektatiba eta munduan egoteko moduak. Gai tabua izan denez, ordea, ez da nahikoa hitz egiten horiek heteroarauaren eraikuntzan eta botere-harremanetan duten pisuaz eta, horregatik, horien inguruak hitz egiten hasi ahal izateko espazioa izango da.

Formatzailea: Iñi Etxezarreta Toca (Eihera Koop. Elk. Txikia)

Hizkuntza: Euskara


Noiz: Maiatzak 23

Ordutegia: Ostirala, 17:00etatik 20:30etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 3,5 orduko saio bat

Prezioa: Doan



DESBOTERETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Herria eta P.K.	
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? BAI EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? BAI EZ

Nola? Whatsapp Korreo elektronikoz

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

2025eko en (e)an

Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

1. GIZONEK FEMINISMOAREKIKO DUTEN ARDURA

2. DESIRA, EROTIKA ETA HETEROARAUA

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? BAI EZ

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? BAI EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.



emakumeen txokoko
zerbitzu, ekimen, tailer iraunkor
eta askotariko jarduerak

PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIORAKO EKIMENAK

Parekidetasuna bultzatzeko askotariko ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalari, **pertsona orori**, irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

1. HITZALDIA: "INDARKERIA ESTETIKOA ETA ANIZTASUN KOPORALA: GENERO AUZIA"

Emakumeoi zuzen-zuzenean eragiten digun Indarkeria estetikoari buruz hausnartzeko abagunea izango du-gu. Indarkeria mota horrek ondorio larriak izan ohi ditu osasunean zein autoestimuan, bereziki gorputz-aniztasuna ukatzen duen mundu honetan.

Hizlaria: Magda Pineyro

Hizkuntza: Gaztelera

Eguna: Apirilak 30, asteazkena

Orduetgia: 18:00etan

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

2. ZINEGOAK

Nazioarteko LGTBQIA+ Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko laburmetraiak ikusiko ditugu.

Hizkuntza: Euskara

Eguna: Maiatzaren 14an, asteazkena

Orduetgia: 18:30etan

Lekua: Soreasu antzokian

3. HITZALDIA: "EMAKUMEAK, EROMENA ETA ISILTASUNAK"

"Ni, Vera" eta "Punto bobo" liburuen idazlearen eskutik, erotzat jotako emakumeen garrasi isilen adibideetatik abiatuta, osasun mentalaren inguruan eraiki zen eta den eredu izango dugu hizpide. Egun, garrantzi berezia du osasunaren inguruko hausnarketa feministan sakontzea, eta, are gehiago, psikiatriari ikuspegi feministatik begiratzea.

Hizlaria: Itxaso Martin Zapiain

Hizkuntza: Euskara

Eguna: Apirilak 2, asteazkena

Orduetgia: 18:00etan

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

IKASTARO IRAUNKORRAK ETA PARTE HARTZE TALDEAK

1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologiako ikasketak egin nituen eta paradoxikoki irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean berreskuratu nuen irakurtzeko gogo, plazera eta zaletasuna. Bi pasioren uztarketak eman dit ofizioa: literaturak eta feminismoak.

Ikasturte honetan, berritasun gisa, hiru saioetara liburuen idazleak etorriko dira. Bisita horiek aukera paregabea eskainiko dute egileekin solasean aritzeko eta haien lanetan sakontzeko, horrela gure esperientzia literarioa aberastuz eta irakurzaletasuna sustatuz.

Formatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegui

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Urtarrilak 23, otsailak 20, martxoak 20, apirilak 10, maiatzak 22, ekainak 19

Ordutegia: Ostegunetan, 17:30etik 19:30era

Iraupena: 6 saio, 12 ordu

Prezioa: 16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat / 20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

*Izena emandakoan, harreratik pasatu liburura jasotzera

**Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago

2. EMPALABRAMIENTO

Este es un taller formativo de español, habilidades personales y funcionales para el empoderamiento de las mujeres. Aunque esté centrado en la alfabetización y nivel básico de castellano, se adapta constantemente a las necesidades y niveles del grupo, trabajando de esta manera diversos temas. Además, se ofrecen herramientas para trabajar en colectivo y aprender las unas con las otras.

Formadora: Nerea Del Campo

Idioma: Castellano

Cuándo: Los lunes, miércoles y viernes

Horario: De 10:00 a 12:00

Precio: Gratuito

PARTE HARTZE GUNEETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena Abizenak

Jaioteguna NAN

Herria eta P.K.

Posta elektronikoa Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? BAI EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? BAI EZ

Nola? Whatsapp Korreo elektronikoz

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

2025eko en (e)an

Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

2. EMPALABRAMIENTO

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? BAI EZ

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? BAI EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.



Zerbitzu eta baliabide feministak

Genero berdintasuna bermatzeko eta parekidetasunaren balioekin bat egiten duten zerbitzu ugari ditugu inguruan. Azpeitiko parekidetasun arlotik bereziki, hainbat zerbitzu kudeatzen dira eta horien inguruko informazio eta sarbidea eskaintzen da Emakumeen Txokotik. Zerbitzuak, KONFIDENTZIALAK, PROFESIONALAK ETA DOAKOAK dira.

HARRERA ETA INFORMAZIOA

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduak...

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara eta ostiralak 9:00etatik 13:00etara

GUNE INFORMALA

Liburutegi feminista
Kontsultarako gunea
Berdintasun gaietan murgiltzeko interneterako sarbidea
Saretzeko eta egoteko gunea

LIBURUTEGI FEMINISTA

Liburu kontsultak
Liburu maileguak
Ikus entzunezkoen maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke

ERREMINTA MAILEGUA

Etxeko lan txikietarako erreminta maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Prozesu judizialen inguruko informazioa eta horien inguruko aholkularitza feminista eskaintzen duen zerbitzua da.

Emakumeek beraien prozesuetan autonomia eta ahalduntzea garatzeko tresnak eskaintzen dira. Askotariko gaiak jorratzen dira.

Hilean bi ostegunetan, 16:00etatik 19:00etara.

*Aurrez hitzordua hartu behar da 688 751 000 telefonora deituta

**Hitzordura ezin bazara azaldu, abisatu 48 ordu lehenago, gutxienez.

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ



LARDAXKA: SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA

Sexuaren, generoaren eta sexuen arteko harremanen inguruko ezinegonak, zalantzak eta zailtasunak argitzeko zerbitzua da. Herritar orori zuzenduta dago eta banaka, bikotean zein kolektiboan erantzungo da: aurrez aurre, telefonoz edo era telematikoa.

Bi asteartean behin, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.


*Aurrez hitzordua eskatu behar da Emakumeen Txokoan edo 688 751 000 telefonora deituta

** Online bidezko kontsulta egiteko aukera.

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ



¿CÓMO ESCANEAR UN CÓDIGO QR?





indarkeria matxistari aurre egiten

Egungo jendartean, emakumeok emakume izateagatik indarkeria matxista pairatzen dugula jakinekoa da. Hainbat indarkeria mota jazo ditzakegu, besteak beste, genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu indarkeria edota jazarpen sexuala. Askotariko aurpegiak ditu indarkeriak eta, beraz, forma ugari har ditzake bortizkeria horrek; hots, psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa edota soziala izan daiteke.

Indarkeria mota eta forma horiei guztiei aurre egin badiozu noizbait, aurre egiten ari bazara edo egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baduzu, babesleku emozional eta sozialerako espazioa dugu Emakumeen Txokoan. Maila indibidualetik harago, kolektiboan elkar zaintzeko espazioa, alegia.

Informazio gehiago beharko bazenu, jarri gurekin harremanetan.

